

**Zugarramurdi** historian sartu zen Xareta eskualdean duela 400 urte inguru, 1609 eta 1614ren artean, izandako gertakarien kariaz. Bere lezeetan ustezko akelarreak ospatu ziren sorginkeria eta Inkisizioaren historian mugarri suertatuko gertakariei lotutak. Urte horietan zehar, hainbat emakume, gizon eta haur, horietariko asko Zugarramurdikoak, Historian izan den sorginkeria prozesurik handienean leporatuak eta zigortuak izan ziren. Izandako kritika biziak Ofizio Sainduari haren metodoak aldarazi bazizkioten ere, Zugarramurdiko izena sorginkeriari lotua geratu zen betiko.

## ZUGARRAMURDIKO SORGINEN LEZEA

Zalantzarik gabe, Zugarramurdiko lekurik ezagunena eta historikoki garrantzitsua, **lezea** da. Herriko kondairaren arabera, eszenatoki natural honetan herritarrek beren akelarreak ospatzen zituzten. Espainiar Inkisizioak naturaren indarrekin lotutako erritual besta hauei deabruari gurtzeko bilkurak zirela uste zuen. Sorginak ez ezik baita mugalariak ere naturarekin lotuta dauden leze hauek erabili zituzten, muga gainditzeko une egokiaren zain, beraien zamak hementxe gordetzen bait zituzten.



## ZUGARRAMURDIKO SORGINEN MUSEOA

**Sorginen Museoan**, Ospitala izandako etxean kokatua, gizaki mitologiko, sendabelarrak eta errito zaharren munduan sartuko zarete. Esterotipoak alde batera utzita, sorginkeriarekin lotutako aferak eta XVIIgarren mendeko eskual gizartea, bere mito eta kondairekin, erakusten ditu. Ikusentzunezko, eszenatoki erakargarri eta ukitzeko pantailekin Zugarramurdin gertatutako prozesu inkisitoriala ezagutu duzue



## Eskeintzen ditugun zerbitzuak

- Turismo bulegoa
- Denda
- Gidatutako bisitaldiak Museo eta lezean (4 hizkuntzatan)
- Sorgin batek gidatutako bisitaldia, Zugarramurditik barna
- Programatutako proiektio eta hizaldiak.

# ZUGARRAMURDI SORGINEN HERRIA



info@zugarramurdi.es  
Tlf. 948 59 90 04  
948 59 93 05

**bai**  
euskarari | zerbitzua  
euskaraz

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)